

Euskaltzaindiaren eta Bertsozale Elkartearen deialdia (2022)

bertsolaritza hizkuntzalaritzaren ikuspegitik aztertzeko ikerketa-lanak eta master-amaierako lanak saritzeko

DEIALDIAREN XEDEA

Euskaraz egiten den ahozko jardunari (euskarazko hizkerari) buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzeko xedea du Euskaltzaindiak, Mintzola egitasmoaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxa Fundazioaren arteko lankidetzagiroaren testuinguruan.

Bertsolaritza hizkuntzalaritzaren ikuspegitik aztertuko duten ikerketa lanak sustatzea da Euskaltzaindiak eta Bertsozale Elkarteak duten xedea.

Ikertzaile gaztea edo hasiberria doktoretza-tesiraino eramango duen ibilbidean, aurreko erabakiak eta urratsak ere garrantzitsuak dira, eta hain zuzen ere, bide horretan laguntzea eta bertsolaritza eta hizkuntzalaritza ikergai gisa sustatzea da deialdi honen helburua.

Lehenengo urratsen garrantziaz oharturik, hain justu, ikerlan-proiektuen kalitatea ebaluatu eta sarituko da deialdi honetan, sinesten dugulako unibertsitate-irakasle batek bermaturiko proiektuak kalitate ona duenean ikertzaile hasiberriaren oinarriak sendoak izango direla.

Deialdi honetan, master-amaierako lanen eta ikerketa-lan monografikoen proiektuak onartuko dira, geroko tesiak bultzatzeko helburuarekin. Nolanahi ere, unibertsitate-irakasle doktore batek bermatu behar du proiektua.

PROZEDURA

- 2022an, **3.000 euro gordineko dirulaguntza** bat esleituko da.
- Deialdira aurkeztu daitezkeen lanak 2022-2023 ikasturtean defendatuko dira.
- Dirulaguntza jasotzeko, ezinbestekoa da unibertsitate-ikasketetan tituluduna izatea (baldintza hori egiaztatu beharko da dirulaguntza kobratzeko unean).
- Aritu edota doktorez osaturiko hautaketa-batzordeak baloratuko ditu aurkezturiko curriculumak eta ikerketa-proiektuak. Baremoak zehaztu ondoren, puntu gehien duenetik gutxienekora doan zerrenda egingo du. Puntuazio altuenak lortu eta dirulaguntza

eskuratzea merezi duten hautagaien izenak proposatuko ditu, bai eta horren ordezkoen izenak ere, uko egiteak edo beste edozein gertaera konpontzeko. Batzordeak nahi duen guztiei edo batzuei elkarrizketa pertsonalak egitera dei egin ahal izango die.

- Batzordeak laguntzak eskuratu nahi dituzten eskatzaileen soslaiak edo proiektuak askietsi ezean, 2022an dirulaguntzarik ez ematea delibera dezake.
- Proiektuaren arabera eginiko ikerketa-lana ezarritako epea baino lehen entregatu beharko da eta batzorde zientifiko batek ontzat eman beharko du.
- Saritutako proiektuari dagokion ikerketa lana gauzatutakoan, Euskaltzaindiak edo Bertsozale Elkarteak ikerketa lan hori argitaratzeko eskubidea edukiko du, idazlanaren pasarte bat izan edo idazlan osoa izan.
- Saritutako proiektua gauzatutakoan, Azkue Biblioteka eta Artxiboan eta Xenpelar Dokumentazio Zentroan artxibatuko da. Aldiz, lana argitaratu gabea den artean, hura kontsultatu ahal izateko lanaren egilearen baimena beharko da.
- Dirulaguntza jasotzeak, prestakuntzako helburuz egiten denez, ez du inolako kontratu edo estatutupeko harremanik sortuko Euskaltzaindiarekin, ezta Bertsozale Elkartearekin ere.
- Proiektu bat deialdira aurkeztea aski da, proiektuaren egileak deialdiaren prozedurari dagozkion puntu guztiak onartzen dituela baieztatzeko.
- Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia betez, 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena (“DBEO”) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa (“DPBEDBLO”) aipamen berezia eginez, deialdia honetara aurkezten diren pertsonen datuak Euskaltzaindiaren tratamendu-sistemetan jasoko dira, bera baita tratamenduaren erantzulea

ESKAERAK

- Eskakerak eta behean zerrendatutako dokumentazio guztia PDF formatuan eta e-postaz bidali behar dira honako helbide elektronikoetara: mintzola@euskaltzaindia.eus eta ikerkuntza@bertsozale.eus.
- Eskakerak deialdi honekin batera doan eskaera-inprimakia betez aurkeztuko dira.
- Eskarearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:
 - a) NANaren fotokopia.
 - b) Deialdi honekin batera doan eskaera-inprimakia.

- c) Eskatzailearen CVa eta merezimenduen egiaztagiriak.
- d) Titulu eta ziurtagiri akademiko pertsonala, irakasgai guztien kalifikazioak eta deialdiak adierazita.
- e) Unibertsitate-irakasle doktore baten berme-txostena, ikerketa-lanaren zuzendari izango dela esanez.
- f) Ikerketa-proiektuan ezinbestean agertu behar dira helburuak, esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia (1.500-5.000 hitz).

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Proposamenak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:

- Proiektuaren helburuak eta interesa.
- Proiektuaren ebaluazio orokorra: esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia.
- Proiektuaren garapen-maila.
- Proiektuaren bideragarritasuna.
- Eskatzailearen espedientea: CVa eta espediente akademikoa.
- Euskarazko proiektuak lehenetsiko dira.

DATAK ETA INFORMAZIOA

- Eskakerak aurkezteko epea: 2022ko azaroaren 18ra arte.
- Hautatuen izenak eta ordezkoen zerrenda argitaratzeko eguna: 2022ko abenduaren 16a, beranduenez
- Proiektuaren araberako ikerketa-lana eginda entregatzeko epea: 2023ko ekainaren 15era arte.
- Ordainketak: sarituen zerrendak argitaratutakoan, eta beti ere, 2022ko abenduaren 31 baino lehen.
- Euskaltzaindiaren atarian (www.euskaltzaindia.eus/mintzola) eta Bertsozale Elkarteko atarian (www.bertsozale.eus) argitaratuko da deialdiari buruzko informazioa zein deialdiaren urratsen berri.
- Deialdiaren inguruko gorabehereri buruzko galderak honako helbide elektronikoko hauetako batera zuzenduko dira: mintzola@euskaltzaindia.eus edo ikerkuntza@bertsozale.eus.